

Tartaro

Emmanuel Iñarra-k kontatua

Mattin, artzain gazte bat, mendian galdua da eta aterbea harpe batean atzematen duelarik ardi batzuk heldu dira. Bainan heiekin artzaina ere doa : erraldoi bat biziki azkarra eta begi batekin! Tartaro!

Mattin bere aitatziren ixtorioetaz oroitzen da: "Tartaro kurutzatzen baduk eskapa hadi! Gizajalea da eta bereziki mutikoak jaten ditu".

Azken ardia sartu eta gero Tartarok harpea animaleko arroka batekin kokatzen du eta sua pizten du.

-« Ça sent le chrétien ! ». Mattin usaindu du.

Tartarok artzain gaztea ikusi du ! Mattin entseetzen da eskapatzea, bainan Tartarok mutikoa harrapatzen du !

-Ha ha, harrapatua ! Pixkat mehea hiz, bainan igual du: hi, bihar, nere gosaria izanen hiz! Zer da hire izena ?

-Mattin.

-So egizak zer dutan hiretako!

Tartarok bere zakutik eraztun bat ateratzen du eta Mattinen erhian ezartzen dio.

Hori egin eta gero Tartarok ganibeta bat hartzen du eta ardi bat hiltzen du. Ardiari larrua kentzen dio eta xoko batetara botatzen. Gerren bati esker ardia suaren gainean ezartzen du eta erre delarik kolpe batez jaten du!

Tartaro suaren ondoan lokartzen delarik Mattin entseetzen da arroka kentzea, bainan ezin du. Zer egin? Ideia badu...

Gure artzainak gerrena suan ezartzen du eta punta xuri-xuria delarik Tartaroren buruaren gainean ematen da:

-“Tartaro!” oihukatzen dio.

Tartarok bere begi bakarra idekitzen du eta “Krak!” Mattinek gerrenari esker begia zilatzen dio!

-Aaaaaah! Artzain madarikatua! Harrapatzen baiut xehatuko iut!

Eta gaua hola pasatzen da : Mattin gorde eta Tartaro pleini.

Goizean, iguzki izpiak arrokaren zirritutik sartzen direlarik, Tartarok arroka kentzen du eta harpearen sartzean kokatzen da : ardiak bere zangoen artetik pasarazten ditu eta unkitzen ditu.


Mattinek xokoan zen ardi hilaren larrua bere bizkarraren gainean ezartzen du eta laupataka Tartarorengana doa. Erraldoiaren zangoen artetik delarik Tartarok ardi bitxia sendituz larrua kentzen dio, bainan gure artzaina libre da!

-Adio Tartaro! Etxera noa!

Bainan momentu batez entzuten da :

-Hemen nago ! Hemen nago !

Eraztuna mintzatzen da ! Eraztunak Tartarori erraten dio nun den Mattin ! Mattin entseetzen da eraztuna kentzea, bainan ezin du. Tartaro itsua da bai, bainan ez da elkorra eta Mattin ixtante harrapatuko du !



Mattinek xokoan zen ardi hilaren larrua bere bizkarraren gainean ezartzen du eta laupataka Tartarorengana doa. Erraldoiaren zangoen artetik delarik Tartarok ardi bitxia sendituz larrua kentzen dio, baina gure artzaina libre da!

-Adio Tartaro! Etxera noa!

Bainan momentu batez entzuten da :

-Hemen nago ! Hemen nago !

Eraztuna mintzatzen da ! Eraztunak Tartarori erraten dio nun den Mattin ! Mattin entseetzen da eraztuna kentzea, baina ezin du. Tartaro itsua da bai, baina ez da elkorra eta Mattin ixtante harrapatuko du !

Mattinek aintzira bat ikusten duelarik bere eskua harri baten gainean ezartzen du eta beste harri xorrotx batekin "Txak!" bere erhia mozten du ! Eta uran botatzen du ! Eta han ere eraztuna ari da :

-Hemen nago ! Hemen nago !

-Bai heldu naiz !

Tartaro uran sartzen da eta itotzen da...